

Zesta Puntako Munduko Txapelketa

ETB1 • 17:55ean

Markinatik, zuzenean, Zesta Puntako Munduko Txapelketako partidua eskainiko dituzte Euskal Telebistan.



gaurko filmak Ane Muñoz

LEAVING LAS VEGAS.

Mike Figgis (*One Night Stand*, 1997) prestijiozko zinemagile britaniarraren film kurioso hau oso gomendagarria da, zinemazaleentzat ezezik, gaintzeko ikus-entzuleentzat ere. Argumentu gogor, triste eta tragiko bat abiapuntutzat hartuz, drama ederra lortzen du, oso berria eta nahiko freskoa. Besteak beste bikote protagonistaren antzeppen miresgarriari esker, ikustea merezi du. Elizabeth Shue eta Nicolas Cage gazteak dira eta bikain zuzenduta daude; are gehiago, esan dezaket orain arte antzeztu dituzten lan guztien artean txukunetakoa egiten dutela. Lehenak, luxuzko emagaldurena egiten du, eta bigarrenak, berriz, gaixotasun sendaezina duen gazte alkoholikoarena. Figgisek, antzezpenei ezezik, soinu bandari eta musikari ere garrantzi handia ematen die, ohi bezala.

JUBAL.

Ez dugu aspaldian Delmer Davesen lanik ikusteko aukerarik izan eta, beraz, poztekoa da zinemagile interesgarri horren film garrantzitsuetakoa ikusi ahal izatea. Oso western kuriozkoa da, Ernest Borgnine, Glenn Ford eta aurpegi ospetsu pila biltzen dituen zeluloidepuska gomendagarria. Daves bera gidoigile gisa aritu zen, Russell S. Hughesekin batera. Istorioa Wyoming aldean kokatu zuten, oinarritzat duen eleberri zaharra errespetatuz. Protagonistek, hantxe, drama tentsu eta ezerosoa biziko dute. Pertsonaien izaera eta jokabideak ekintza baino garrantzitsuagoak dira, eta haien harremanak barneetik eta sakonki aztertzen ditu. Horren guztiorren emaitza, drama psikologiko eder bat.

DOS PILLOS Y UNA HERENCIA.

Izenburuan aipatzen diren bi bihurriak Jack Nicholson eta

Kramerren mundu eroa

HAUXE MUNDU EROA. Stanley Kramer maisuak komedia klasikoei omenaldi polita eskaintzen die lan fin eta dibertigarri honetan. Spencer Tracy, Mickey Rooney eta beste aurpegi ospetsuak biltzen ditu, gangster boteretsu batek ezkutututako altxorra bila dezaten eskatuz. Ezin pertsonaia bitxiagoak topatuko dituzue tartean. Luzea da, baina ez larritu, gustura ikusiko duzue eta.

Madres solteras 1974, Antonio del Amo 11:00 La2	♦♦	Saut périlleux dans un cercueil 1996, Dervis Zaim 23:45 Arte	♦♦
Jubal 1956, Delmer Daves 16:00 ETB2	♦♦♦♦	Leaving Las Vegas 1995, Mike Figgis 00:05 La2	♦♦♦♦
Falsas promesas 1995, Peter Bogdanovich 16:15 T5	♦♦♦	Hauxe mundu eroa 1964, Stanley Kramer 01:00 ETB1	♦♦♦♦
Le Clone 1997, Fabio Conversi 21:00 C+(f)	♦♦	Dos pillos y una herencia 1975, Mike Nichols 01:40 ETB2	♦♦♦
Asesinos ciberneticos 1995, Christian Duguay 22:00 T5	♦♦	Chantaje a un marido 1984, William A. Graham 02:30 A3	♦♦
Le pacificateur 1997, Mimi Leder 22:25 C+(f)	♦♦	Pasaporte a la locura 1968, Richard Rush 02:30 La2	♦♦
Solo en casa 3 1997, Raja Gosnell 22:30 C+(e)	♦♦	Foso de acero 1994, David Frost 03:15 T5	♦♦
¡Alto!, o mi madre dispara 1992, Roger Spottiswoode 22:50 TVE1	♦♦	Carta de amor de un asesino 1972, Francisco Regueiro 04:00 La2	♦♦
Los jueces de la ley 1983, Peter Hayms 23:45 A3	♦♦♦		

▲ TXARRA ▲▲ ESKASA ▲▲▲ BALEKOA ▲▲▲▲ ONA ▲▲▲▲▲ BIKAINA



Nicolas Cage eta Elisabeth Shue, *Leaving Las Vegas* filmeko eszena batetan.

Warren Beatty prestijiozkoak dira. Bikote erakargarria, beraz, umorezko zinta arin eta entretenigarri honentzat. 1920ko hamarkadan kokatua dago, eta emakume aberats baten herentzia eskuratu nahi duten bi laguneren abentura dibertigarriak kontatzen ditu.

LOS JUECES DE LA LEY.

Auzi drama interesgarria da, diru eta baliabide askorekin egina, eta modako aktoreek antzeztua. Rol nagusia, adibidez, Michael Douglas garestiak jokatzen du. Ez da nire gustuko aktorea, baina tira, Hyamsek eskatutakoari obeditzen dio eta sinesgarri dabil, oro har.

ETB 1

- 07:20: **Pastoral:** Agirre presidentea.
- 08:05: **Euskal Herriatik.**
- 08:25: **Goenkale.**
- 09:10: **Superbat.**
Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Jentsondarrak', 'Sinbad gaztea', 'Max miresgarria', 'Porky txerritxo', 'Pottokiak', 'Mamu harrapariak', 'Candy, Candy', 'Hartz txiki', 'James Bond gaztea', Zinea (marrazki bizidunak): 'Ninja dortokak: dortokideen planeta'.
- 13:00: **Iparraldearen Orena.**
- 13:05: **Ninja dortokak.**
- 13:30: **Gaur egun.**
- 14:15: **Goenkale.**
- 15:00: **Beakmanen mundua.**
- 15:25: **Bidaide.** Dokumentala: *Tigreak sugar disdiratsua itzalita.*
- 16:30: **Ibilbideak.**
- 16:55: **Jaun ta jabe.**
- 17:50: **Iparraldearen orena.**
- 17:55: **Zesta punta: Munduko txapelketa.**
Zuzendaria: Stanley Kramer. Aktoreak: Sid Caesar, Milton Berle. 1964.
- 03:30: **Sikofonia.**
- 04:30: **Beni eta Marini.**
- 05:05: **Benta Berri.**
- 05:25: **Ikusgela.**
- 06:05: **Mendeari begira.** Dokumentala.

LMKETXY
E ETEG
E ME
uz 16 25

ETB 2

- 08:05: **Del pais de los vascos.**
- 08:40: **El verano del siglo.**
- 09:10: **Forum.**
- 09:40: **Entre 2 fuegos.**
- 10:40: **La hora de Mari Pau.**
- 11:45: **Luz de luna.**
- 12:35: **La buena vida.**
- 13:05: **Compañeras de piso.**
- 13:30: **Roseanne.**
- 14:00: **La Niñera.**
- 14:28: **Teleberri.** Albistegia.
- 15:30: **El verano del siglo.**
- 16:00: **Zinema.**
Jubal.
Zuzendaria: Delmer Daves. Aktoreak: Glenn Ford, Ernest Borgnine. 1956.
- 17:50: **Medias de seda.** Telesaila.
- 18:45: **Cinco en familia.** Telesaila.
- 19:30: **Pacific Blue.**
- 20:58: **Teleberri.**
- 21:55: **Zombados.**
- 22:30: **El show de...**
- 23:50: **La noche fantástica.**
Más allá del límite: Una nueva vida. Historias de la cripta (00:40): Peso muerto; La trampa.
- 01:40: **Zinema.**
Dos pillos y una herencia.
Zuzendaria: Mike Nichols. Aktoreak: Warren Beatty, Jack Nicholson. 1975.
- 03:05: **Amaiera.**



irratia ♦

Euskadi Irratia. Eguneko efemeride, kontu bitxi eta galdera kuriozorekin hasiko dira ohi bezala *Goiz berri* irratsaioan. 10:00etan, asteko zine-estreinaldien berri emango dute. 10:30etan, berriz, norberaren izen-deiturak aldatzeko gaur egun legeak eskaintzen dituen aukerez hitz egingo du abokatu batek. Ondoren, eguneroko lehiaketaren txanda iritsiko da (entzuleek 3 zakutan banatuta dauden galderetatik aukeratu beharko dute).

11:10etan, Imanol Ubeda musikari ezagunak eskaintza berezia egingo du. Eta jarraian elkarrizketa sakon eta zabal egingo diote Kike Amonarriz. 12:00etan Pello Zabalak eguraldiaren berri emango du. Segidan erretzaile ezagun batzuekin hitz egingo dute Euskadi Irratian; izan ere, erretzaileek arazo psikologikoak dituztelako erretzen dutela zioen albiste bat argitaratu da, eta horren inguruan eztabaidatuko dute.

Segura Irratia. Eguneroko bezala, zorionagurrak eta entzuleen deiak izango dira goizeko 09:00etatik 10:00etara *Kalejira* irratsaioan. 13:30etan, Nikolas Iparragirek Frantziako Tourraren gaurko etaparen berri emango du *Radio deporte*-n, gaintzeko irrati askotan egiten duten bezalaxe. Gaueko 21:00etatik 22:00etara, berriz, aktualitatearen alde ezkutua azalduko du Jose Anjel Ibarzabal esatariak *Panorama* irratsaioan.